

## MERKATUEN SEGMENTAZIOA:

### **Zein da gure bezeroa?**

Gure bezeroaren gehiengoa jende heldua izango da, adin horretako jendeak osasun arazo edo gaixotasun gehiago izaten baititu. Hala ere, gaixotasun konkretu bat edo denbora batean pilula bat hartzea behar duen pertsonentzako produktua ere egokia izango da.

### **Zein dira bezero horien ezaugarriak?**

Gure bezeroen ezaugarri nagusia une konkretu edo plazo luze batean pilula bat hartu behar dutela da, hau da, osasun arazoak dituzten pertsonak izango dira. Bezero hauek, arazo honi aurre egiteko ahalik eta produktu lagungarrienak bilatuko dituzte, eta, horietako bat, gure pilula botila izango da.

Gure ustez, ez dago adin konkretu bat botila hau erabiltzeko, baina gure gomendioa nerabezaroan dauden pertsonak, hau da, 15-16 urtetik gorako jendeak erabiltzea da.

